TANTAK FEST

OZEANOEN JAIALDIA
FESTIVAL DE LOS OCÉANOS
www.tantakfest.eu / www.tantak.eu



3. edizioa · AZAROAK 21 eta 22 · 2026

TANTAK ozeanoen jaialdira gonbidatzen zaitu Itsasmuseum Bilbaon

BI EGUN OZEANOA EZAGUTZEKO

Itsaspeko argazkigintza, herritar zientzia, adin guztientzako tailerrak eta zinema dokumentala.

BEGI KOLPE BATEZ

21 LAR

Argazkiak · Zientzia · Dokumentalak

CIMASUB argazki-erakusketa, «Itsasoko sekretuak» tailerra eta dokumental-proiekzioak Zilar Kategoria.

22 IGA

Museoa · Tailerrak · Dokumentalak

Doako sarrera museora; jarduera zientifikoak, haurrentzako tailerrak, familia tailerrak eta proiekzio dokumentalak Urre Kategoria.

Ekintza guztiak doakoak dira

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK · WWW.TANTAKFEST.EU **JARRAI IEZAGUZU · TANTAK.EU ·**

21 LARUNBATA AZAROA

Itsaspeko argazkiak, esperimentuak eta dokumentalak

11:00–19:00 ERAKUSKETA

CIMASUB: 50 urtez ozeanoa hurbiltzen

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloko argazki-erakusketa. Ezagutu ozeanoa mundu mailako argazkilari handien begiradaren bidez.

17:00–19:00 DOKUMENTALAK

CIMASUB · Zilar Kategoria

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren proiekzio dokumentalak. Publiko guztientzat. Sarrerak edukiera bete arte.

17:00–19:00 HERRITAR ZIENTZIA TAILERRA

Itsasoaren sekretuak

Zergatik da gazia itsasoa? Zer dago hondarretan? Zer kontatzen digu haren pH-ak? Herritar zientzia esperimentuak ozeanoaren bitxikeriak eta ekosistemen erronkak ezagutzeko Aztertu programaren eskutik. Publiko guztientzat. 8 urtetik beherakoak, heldu batekin. Izen-ematea *in situ*, iritsiera ordenaren arabera. 30 minutuko txandak.



22 IGANDEA AZAROA

DOAKO SARRERA · EZINBESTEKOA MUSEOKO SARRERA LORTZEA

Sartzeko Itsasmuseumeko sarrera lortu behar da. Doako eguna.

11:00–19:00 MUSEORA BISITA

Doako sarrera Itsasmuseum Bilbaora

Museoa bisitatu jaialdiaren egunean.

11:00–19:00 ERAKUSKETA

CIMASUB: 50 urtez ozeanoa hurbiltzen

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloko argazki-erakusketa. Ezagutu ozeanoa mundu mailako argazkilari handien begiradaren bidez.

11:00–15:00 TAILERRAK

Ulysses Data for Science

Bizkaiko Golkoko itsas zaborraren jitoari buruzko tailer zientifiko-artistikoa eta hura ezabatzeko ekintzak AZTIren eskutik. Publiko guztientzat. 8 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta parte hartu beharko dute. Izen-ematea *in situ*, iritsiera ordenaren arabera. Ordu bateko txandak.

11:30–13:00 TAILERRAK

Ura bizitza da

Haur tailerra

4-10 urteko haurrentzat. Izen-ematea aldez aurretik tantakfest.eu webgunean, azaroaren 9tik aurrera.

12:00–13:30 TAILERRAK

Korrontearen kontra

Familia tailerra

Zein da *fast fashion*-aren eragina ozeanoetan? Korrontearen kontra joateko ordua da. Hondakinen Prebentzioaren Europako Astearen (EWWR) jarduera, baliabideen erabilera arduratsuagoa sustatzeko eta hondakinen sorrera prebenitzeko. Heldu eta 6 urtetik gorakoentzat. Adingabeak heldu batekin etorri behar dira. Izen-ematea aldez aurretik tantakfest.eu webgunean, azaroaren 9tik aurrera.

17:00–18:30 TAILERRAK

Itsasoaren soinuak

Haur tailerra

4-10 urteko haurrentzat. Izen-ematea aldez aurretik tantakfest.eu webgunean, azaroaren 9tik aurrera.

17:00–19:00 DOKUMENTALAK

CIMASUB · Urre Kategoria

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren proiekzio dokumental onenak. Publiko guztientzat. Sarrerak edukiera bete arte.



Ekintza guztiak doakoak dira

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK · WWW.TANTAKFEST.EU

JARRAI IEZAGUZU · TANTAK.EU ·